


Heri Aldizkaria

otomotz

2002ko azaroa 81. alea



Josemari Aleman, jaioterrira begira

ELKARRIZKETA: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

ERREPORTAIA: ANIMO "MUSTI"!!

IZERDI PATSETAN: MAITANE ANDUEZA

Aurrera "Musti"!!



23an denok Donostiara!



Luistarrek 1965eko San Inazio egunean Donibane Lohitzunera egin zuten txangoan ateratako argazkia. Aurreko ilaran: Pello Gartzandia, M^a Rosario Uribesalgo, M^a Jesus Berasategi, Luis Migel Arrizabalaga eta Sanz. Atzeko ilaran: Floren Oartzabal, Olatz Urrestilla, Beatriz Maeso, M^a Rosario Aranzadi, Tirapu eta M^a Isabel Arrizabalaga.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Buzkantza lehiaketako saria Ordiziara joan zen

Hil honetako lehen igandean, azken urteotan ohitura den bezala, Zumarragako XX. Buzkantza Lehiaketa, "Jose Maria Busca Isusiren Omenezko XVII.a", izan zen.

Aurtengo lehiaketan 7 odolkgilek parte hartu dute. Irabazlea Ordiziako Juan Mujika izan da. Mujikak 300 euroko saria eta prentsan iragarkia irabazi ditu. Bigarren saria, 300 eurokoa, Jesus Mari Debak irabazi du eta aurkezpen onenari ematen zaion saria ere, 180 eurokoa, odolkgile honentzat izan da.

Azaroaren 3ko igande goizean eguraldi txarra izan bazen ere, jende ugari bildu zen Euskadi enparantzako arkupetan buzkantzak dastatu eta antolatutako ekitaldiak ikusteko asmoz.

Ohitura den legez, artisau lanen erakusketa eta haurrentzako tailerrak ere izan ziren. Ekitaldirik arrakastatsuen, dena den, Igor Etxaniz "Kinttela" azpeitiarrak eskaini zuen hezitako zaldien erakustaldia izan zen.



Sagardo prentsaldia Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrian

Hil honetan jende andana pasa da Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserritik, bertako habe luzeko dolarearekin sagarra nola zanpatzen zuten ikusteko aukera izan baita hilaren 8tik 14ra. Igartubeitikoa Euskal Herrian lanean ari den habe luzeko dolare bakarra da.

Gehienok dakizuen bezala, egurrezko egitura duen Igartubeiti baserria jatorrizko eran dago eta gure arbasoak nola bizi ziren eta nola lan egiten zuten gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen du. Urretxu-Zumarragatik hain gertu egonda, benetan merezi du Igartubeiti baserria bisitatzea. Ekainera bitartean asteazken eta ostiraletan goizeko 10etatik eguerdiko 2etara izaten da zabalik. Larunbat, igande eta jaiegunetan, berriz, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Izarrak eta txalaparta, Gau Giroan programaren azken eskaintza

Zumarragako Udalak antolatzen duen gaueko aisialdi alternatiborako Gau Giroan programaren hirugarren edizioa bukatzea doala eta, Aitor Esnal kultura zinegotziak eta Julian Arin ongizate zinegotziak prentsaurrekoa eskaini zuten balorazioa egiteko eta azken ekitaldiak ezagutzera emateko. Arin eta Esnal, orain arte eskuratutako emaitzak direla eta, baikor eta programarekin jarraitzeko prest azaldu ziren.

Izan ere, orain garatzen ari den edizio honetan sei ikastaro proposatu ziren eta hauetatik bost abian jarri dira: masaje ikastaroa, sukaldaritza ikastaroa, grafolojia ikastaroa, "Seguru ligatzeko gauak" eta "Ingelese hizketan lagunekin". Hauetako bakoitzean 12 lagunek parte hartu dute batazbeste.

Zumarragako Udalaren beste helburuetako bat partehartzaileen batazbesteko adina igotzea zen eta baita lortu ere: 25 urtetik gorako gazteen portzentajea dagoeneko %35etik gorakoa da.

Hirugarren edizio honek izan duen hutsunerik handiena larunbatetako ekintzetan eman den partehartze eskasa izan da. Hori dela eta, Udalak hirugarren edizio honetako azken bi larunbatetarako ekitaldi oso bereziak antolatu ditu. Hilaren 16an "Sex Gaua" izan zen: gazteek sexologo profesionaleri kontsulta egiteo aukera izan zuten Zelai-Ariziti aretoko sarreran eta, ondoren, "Prostibulo" izeneko antzezlanaren izan zen.

Larunbat honetan, berriz, mendi irteera izango da. Gazteak gaueko 9etan Samiñorantz abiatuko dira eta Pagotxetan, gauerdian, teleskopio baten bidez zerua behatzeko aukera izango dute. Horretarako, astronomo baten laguntza izango dute. Aldi berean, Mendiaraz Anaiei txalaparta soinuaz gozatzeko aukera izango dute.

Aipatu bezala, Zumarragako Udalak Gau Giroan programarekin jarraitzeko asmoa du. Hurrengo ediziorako zuen gustuko zer edo zer proposatu nahi baduzue, gau-giroan.zu@zumarraga.net posta helbidean egin dezakezue.



ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77


URRETXU

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Mendizaleen astea

Igandean eman zitzaion hasiera Ostadar Mendi Taldeak urtero antolatzen duen Mendi Asteari. Ohitura den legez, Anjel Etxeberriaren omenezko haur ibilaldi neurtua izan zen egitarauari hasiera eman ziona. Aurtengo ibilaldia Legazpitik abiatu zen eta, Lakiola eta Korostitik pása ondoren, Zumarragan bukatu.

Astelehenetik ostiralera bitartean, berriz, urtero bezala, diapositiba emanaldiak izango dira. Astelehenean Txerra Eskibelek Patagonian eskalatzen ari zela ateratako irudiak eskainiko ditu Pagoeta antzokian gaueko 8etan.

Asteartean, toki eta ordu berean, Juan Mari Gabilondo "Txibis"ek Euskal Herriko mendietan ateratako diapositibak botako ditu. Asteazkeneko emanaldia Zelai Arizti aretoan izango da. Iñaki Alvarezek, Jon Marotok eta Xabi Ormazabalek Komunismo mendia igotzeko egindako saiakeran ateratako diapositibak erakutsiko dituzte.

Ostegunean Iñaki Urkiolak "Irimotik Alpeetara" izenburua duen emanaldia eskainiko du Zelai Ariztin gaueko 8etan. Aurtengo Mendi Asteko azken diapositiba emanaldia ostiralean izango da Pagoeta antzokian: Joseba Egibarrek "Thuleko azken ehiztariak" izenburuko emanaldia eskainiko du.

Biharamunean, hilaren 23an, Ostadarreko bazkideek urteroko bilera egingo dute arratsaldeko 7:30etan euren egoitzan. Ondoren, gaueko 9etan, Gau Giroan programaren barruan, Samiñora joango dira gazteekin batera izarrak ikusi eta aztertzeko. Mendizaleek astronomo baten laguntza izango dute eta Mendiaraz Anaiak txalapartariak gaua girotuko dute.

Mendi Astea, urtero bezala, igandean bukatuko da. Egun horretan, hilak 24, Ostadar Mendi Taldeko kideak Arabako Iturrietara joango dira eta ondoren bazkaria egingo dute.

San Martinak Urretxun eta Agiñan



Hilaren 11n San Martin Eguna ospatu zen Urretxun eta Agiñan. Asteotan eguraldi petrala izan badugu ere, San Martinetan ateri izan zen eta ez da gutxi. Urretxun haurrentzako jolasak, txokolatada, "Martintxo" txerriaren zozketa, buzkantza dastaketa eta Iparragirre Balerdi Musika Tailerraren emanaldia izan ziren. Zozketan bildutako dirua Brasilen dagoen legenardundegi (leproseri) batera bidaliko da, bertan, San Martin auzoko Imanol Ayerbe Aita Agustinoak lan egiten baitu.

Agiñarrek, berriz, larunbatean hasi eta astelehenean, San Martin egunean, bukatu zituzten auzoko jaiak. Hauek ere nahi adina odolki eta txorixo jateko aukera izan dute. Aurten, gainera, eliza berriztatuan organua estreinatu dute. Irunen zen organu hau Aita Koldo papiotarrari esker heldu da Agiñara.

Elkartasun Dendak atek ireki ditu

Ostiralen ireki zituen bere atek Zumarragako parroki elizako Kilimetrako Aisialdi Taldearen eta Misiotako Taldearen Elkartasun Dendak. Denda hau abenduaren 22a bitartean zabalik izango da, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 8etara eta larunbatetan goizeko 9etatik eguerko 1etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara. Aurten denda garai batean Central Hispano zen lokalean dago, Zumarragako Secundino Esnaola kaleko 4 zenbakian hain zuzen ere.

Dakizuen bezala, denda honetan COPRODELI gobernuz kanpoko erakundeak bidezko merkataritza bidez erosten dituen produktuak izaten dira salgai. Aurten Peruko arropak, haurrek marraztutako postalak eta artisauro produktuak daude besteak beste.

Dendan ateratako dirua Dominikar Errepublikako geriatriko batera bidaliko da, besteak beste, elektrotresnak eta gurgildun aukiak eros ditzaten. Geriatriko hartan Josefa Antia Zabaleta, Sor Ines, moja merzedariatarra dago eta bere kargu haitiar jatorriko hainbat agure txiro ditu.

Mineralogi eta Paleontologi Aste arrakastatsua



Urretxuko XV. Mineralogi eta Paleontologi astea Urriko azken egunetan hasi eta azaroko lehen egunetan bukatu zen astean izan zen. Aurten ere estatu guztiko saltzaile eta erosleak bildu dira Urretxun. Horretaz gain, Kultur Etxean eta Juan de Lizarazu aretoan erakusketak izan dira eta haurrek historiaurreko gizakiek bezala margotzeko eta urrea bilatzeko aukera izan dute.

Javier Aguado Goñi antolatzaileak esan digunez, erakusmahaietan sekula baino mineral eta fosil hobeak izan dira. "Iaz goi mailako bildumagile batzuk etorri ziren Urretxura eta, nire ustez, hau ikusirik, saltzaileek euren mineral eta fosil onenak ekarri dituzte".

Urretxuko topaketaren maila gorantz doala esan daiteke, beraz. "Bildumazale elkarteetan Urretxun gauza interesgarriak aurki daitezkeela zabaldu da eta feria handietara soilik joaten diren bildumagileak hona ere etortzen hasi dira".


Saltzaileen kopurua eta maila ere gorantz doa. "Ederrenan 40 bat erakusmahai besterik ez dira kabitzen eta guztiak betetzen dira. Aurten 12 lagunei ezezkoa eman behar izan diegu".

Javierri feria handitzea gustatuko litzaioke, baina zaila ikusten du. "Bilboko feria gainbehera doa eta erakusketari askok hona etorri nahi dute, baina ez dugu guztiei kabida ematerik. Izan ere, aipatu bezala, Ederrenan ez dira mahai gehiago kabitzen eta, gainera, ez dago guztientzat adina ostatu inguruotan".

Dena den, Javier oso gustura dago. "Bisitari asko etorri dira eta bisita gidatu guztiak jendez gainezka izan dira. Etorri nahi zuten eskola guztientzat tokirik ez genezuz, hauetako batzuk azken aste hauetan etorri dira".

Itsaski zozketa abian da

Zintzo-Mintzok hirugarren urtez jarraian euskararen aldeko itsaski zozketa abian jarri du udazkena heltzarekin batera. Txartelak jada salgai dira 1,2 eurotan eta lehen zozketa abenduaren 6an izango da, beti bezala, Ederrena pilotalekuko tabernan. Zorte on!



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labatega 52-54 F URRETXU

☎ 725682

☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA


943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Ibon Garmendia

Musikaz hainbat gogoeta

Iritzi artikulu hau idazteko eskatu zidate-nean eta baiezkoa eman ondoren zera galdetu nion neure buruari halako gai baten bila nebile-la-azaroa zertan da oparoa?-, egutegiari begira jarri eta berehala udazken erdian herriotan egun garrantzitsuak ditugula konturatzen hasi banintzen ere begiak egun berezi batera joan zitzaizkidan nahi gabe, Santa Zezilia egunera alegia.

Hainbatek gogoratuko ez badu ere, esan nahi nuke egun hori (azaroaren 22a) musikarien eguna dela.

Herriko musika maixu batek esaten duen bezala musikaria da bere patriaren egunean lanerako grina azaltzen duen bakarra. Adibideak ugari dira, optikoek Santa Lutzi eguna aukeratzten dute jai egiteko, ikasle-irakasleek Akinoko Santo Tomas, instituzioek Santa Rita... Ba, musikariak beste era batera ospatzen du eta kontzertuak edo ekitaldiak antolatu eta eguna lanean pasatzen du.

Musika gure herrian zenbateraino erroturik dagoen pentsatzen jarri naiz eta aitortu behar dut sentsazio onak etorri zaizkidalda burura. Esan nahi nuke garen biztanle kopururako ia denetarik dugula eta hori jende askoren itzaleko inurri lanari esker izan dela.

Honela zerrendatxo bat egiten ausartu naiz eta loratu diren fruituak zein diren aipatuko ditut irakurlea kontura dadin hemen duguna ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula.

Aipatu nahiko nuke txalaparta jotzen 26 urte daramatzaten Mendiaraz anaiak eta 10 urte daramaten Zuhaitzaren Soina Kolektibokoak. Nire galderetako bat hau da, zenbat hamarkada daramatza Zumarragako trikitixak kaleak girotzen? eta orain Euskal Herrian punta-puntan dauden herriko hainbat trikitilari bikotek? Lau hamarkada daramatzate bi herriotako txistulari taldeek beren doinuak igandero eskainiz eta jende mordoa musika herrikoiaz zaletzen, makina bat urte Iratzarri dultzainero taldeak gure gaita jotzen, Zumarragako musika bandaren maila eta solemnitatea gutxik dute inguruotan, Urretxuko musika tailerrak erraztasunak besterik

ez dizkio jartzen musika tresnaren bat ikasi nahi duenari. Kantuari dagokionez herrian eztarriak puntuan dituzten 3 parroki abesbatza ditugu, 20 urte bete berriak dituen Goiargi abesbatzak harrobia segurtatu du Kimets eta Goiargi txiki proiektuekin eta lehenago kantu zaleak izan arren azkenak kantura biltzen jubilatuek sortutako Goizalde abesbatza, denera zenbat jende izan daiteke herrian kantari, inoiz pentsatu al duzue horretan?. Hainbeste kantu talderen artean denborak eman ditu bere fruituak eta hor zehar dabilta talde hauetatik ateratako ahotsik onenak opera munduan edota puntako abesbatzen sendotze lanetan. Orain arte aipatutako guztia musikariz elikatzen lan haundia egiten du Secundino Esnaola akademiak eta bertako orkestra propioan gaztetxoak baliagarri ikusten hasten dira. Honela musika jole izugarriak atera dira eta buruan ditut hainbat biolinjole, soinujole, klarinetejole, flautajole edota pianojole zeintzuek punta-puntan egon litezkeen estatu mailan.

Musikaren beste alor batzuetan hortxe daude Ostebi, Fits eta Spezial Guest taldeak beraien biratxoak egiten eta Estitxu Sudupe jadanik izen ezaguna Euskal Herriko etxe askotan.

Jaun andreok goian aipatu ditudanak ez dira denak eta barka bekite aipatu gabeek, baina hala ere esan jende ugari itzalean eta askok musutruk egindako lanaren fruitua dela. Ez dira denak punta-puntakoak izango baina gure herriarentzat altxor haundia dela aipatu nahiko nuke.

Nire ustez Secundino Esnaola edo Jose Mari Iparragirrek burua altxatuko balute txalotu egingo lukete egin den lana baina ez nuke bertan lo hartzerik nahi anbizio handiagoa eskatuko nieke talde guztietako partaideei datozen lagun berriek erreferentzia bat izan dezaten eta talde multzo oparo hau behingoz sustraitzeko.


Nire partetik eta azaroaren 22-ra begira ZORIONAK musika jole eta zale guztioi eta gogorarazi egindako bidea luzea izan bada ere, asko dugula bakoitzak bere alorrean egiteko.

Zer iruditzen zaizu Realaren aldaketa? Denboraldi bukaeran sailkapenaren goialdean jarraituko duela uste al duzu?



Irene Calvillo

Realzalea naizenez, oso gustura nago.
Bide onetik doazela dirudi (bazen garaia) eta poza ematen du Reala hor goian ikusteak.



Fermin Calvo

Futbola ez dut asko atsegin, ni pilotazalea naiz. Onenak irabazi dezala eta kitto. Futbola batere segitzen ez dudan arren, Reala ondo dabilela badakit.



Ainhoa Garmendia

Futbolzale samarra naiz, baina ez naiz talde bateko zaletua. Hala ere, Reala goran egoteak pozten nau, noski. Ea sailkapenean goialdean jarraitzen duen!




Patxi Babiano

Futbola jarraitzen dut, baina ez naiz talde bateko zaletua. Dena den, Reala goran egotea atsegin dut, gazteen artean kirolzaletasuna bultzatzen laguntzen baitu. Gainera, astelehenetan jendea lanera umore hobearekin joaten da.



Eguzkiñe Plazaola

Futbola asko atsegin ez dudan arren, badakit, noski, Reala ondo dabilela. Izan ere, tabernan jende guztiak horretaz hitz egiten du. Igande arratsaldeetako giroa ere aldatu dela esango nuke.



Unai Zabaleta

Oso pozik nago, baina maldan behera noiz hasiko zain. Izan ere, urte batetik bestera sekulako aldaketa egon da eta sinesgaitza iruditzen zait. Oraingoz behintzat, astelehenetan gusturago joaten gara lanera.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIVATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

Haristizabal bertako produktuen



Xabi, Maizpide eskolako ikasleei ogia nola egiten duten erakusten.

Egun, geroz eta jende gehiago da hirietako bizimodutik ihesi herri txikietara joaten dena, baina oso gutxi Xabi Akizuk eta Mailo Gardokik bezala baserri giroan murgildu eta baserri bizitzaren saiakerak direnak. Bikote arrasatear hau duela 23 urte Euskal Herrian zehar baserri baten bila ibili zen eta,

azkenean, Ezkioko Haristizabal baserria erosi zuen. Xabik eta Mailok, gainera, nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua egin dute. Oso argi dute, Euskal Herriaren etorkizuna oparoa izan dadin baserriarrak eta nekazaritza ekologikoa ezinbestekoak direla.

Nolatan erabaki zuten zuten lanak utzi eta baserrira etortzea?

Egun gazte asko hiriko bizimoduaz nazka-nazka eginda daude eta herri txikietara joaten dira lasaitasun bila. Baina hiritik ihes egiteagatik soilik egiten dute, ez herri txikietako bizimodua izateagatik. Gu Donostian gustura geunden, baina beste zer edo zer nahi genuen. Baserri giroa gauza idilikoa zen guretzat eta horrek normala ez den pausua ematera bultzatu gintuen. Hirian denetik duzu (soldata, kultur zerbitzuak, jendea...), baina guk era naturalean bizi nahi genuen.

Nolatan heldu zineten Ezkiora?

Bizkaian, Araban, Nafarroan, Gipuzkoan... baserri bila ibili ginen eta azkenean Ezkiora etorri ginen. Baserri hau ondo zegoela zirudien, baina teiltatu konpontzen hasi ginenean hiru orma erori ziren. Konpontetez idearik ez genuen arren, ikasi beharra izan genuen. Heldu ginenean ez genekien ia ezer eta gurasoen eta lagunaren laguntza oso garrantzitsua izan zen.

Etxean nola hartu zuten zuten erabakia?

Etxean sorpresa handia izan zen. Baserriko bizimodua gogorra zela bazekiten, baina ez ziguten kontra egin. Gainera, laister konturatu ziren egun baserriko bizimodua ezberdina dela.

Lehenengo urteak gogorak izango ziren...

Lehen 3 urtetan aparteko errekurtsorik ez genuenez, baserrikanpo ere lanean aritu ginen. Hasieran, ardiak, oiloak, ahuntzak, behiak... genituen eta denetik lantzen genuen. Baserrian bertan saltzen genituen gure produktuak, baina beranduago Zumarragako azokan eta dendetan saltzen hasi ginen. Hasiera-hasieratik nekazaritza ekologikoa landu dugu.

Urte batzuk beranduago espezializatzea erabaki zutenen...

Hainbeste gauza dominatzea, eta era ekologikoan gainera, oso zaila zela konturatu ginen. Hori dela eta, salmentarako frutara dedikatzea eta gainontzeko autohornidurarako lantzea erabaki genuen.

Izan ere, 10 hektarea ditugu eta lursail honek ez du ganadutarako ematen. Baratza edo fruta hautatu behar genuen eta bigarrena gustukoago dugu. Baina arbola landuzuzunetik fruitua jasotzen hasten zaren arte urteak pasatzen direnez, urte hauetan ogi ekologikoa saldu dugu. Nafarroatik eta Huescatik ekartzen dugun gari ekologikoa erabiltzen dugu eta legamia etxekoa da.

Aurten, berriz, sagar uzta oparoa izan da...

Orainarte biltzen genituen sagarrak ogiarekin batera saltzen genituen. Baina ditugun 1.500 sagarrondotatik, gehienak duela 8 urte landu genituen eta hauek orain hasi dira sagarrak ematen. Aurten oso urte ona izan denez, 12 tona inguru bildu ditugu, sagar asko ditugu saltzeko. Iaz, berriz, lorealdian eguraldi oso txarra egin zuen eta ez genuen batere jaso.

Ondo saltzen al dira bertako sagarrak?

Jendea sagar mota gutxi batzuetara ohituta dago (Golden eta beste 3 edo 4) eta oso zaila da hortik ateratzea. Ez ditu

aserria: aldarrikapena

hemengo bariedadeak ezagutzen. Sagarrak tamaino eta itxuraz politik atera daitezke, baina jendeak ez du informaziorik eta kostu egiten zaio erostea. 1.000 zapore ezberdin dauden bezala, hemen zapore horiei guztiei erantzuna ematen dieten 1.000 sagar mota daude. Hau, gure gainontzeko gauzak bezala (dantzak, euskara...), baloratzen jakin behar dugu.

Zer esango zenikete jendeari bertako nekazal produktuak eros ditzan?

Independentzia, nekazaritza mailan, bertako produktuak bultzatzea da. Bertako nekazal produktuak bultzatuz, hemengo paisaia eta oreka bultzatzen ari gara. Hala egiten ez badugu, aurki dena kea, pinua eta sasia izango da. Jendeari informazio hau eskaini behar zaio, baina telebistan futbola besterik ez dago. Oreka mantentzea-

“Bertako nekazal produktuak bultzatuz, hemengo paisaia eta oreka bultzatzen ari gara”

ren eta bertakoa lantzearen ardura baserritarrena da, baina kaletarrek konpromiso berarekin erantzun behar dute. Guri frutarekin gertatzen zaiguna, besteei haragiarekin, esnearekin... gertatzen zaie. Urretxu-Zumarragan 100 tabernarik bizitzeko ateratzen dute eta 20 baserritarrek, ordea, ez. Egun guztian edaten egoteko adina bero egiten du ala? Desoreka hau zalantzan jarri beharra dugu.

Bertako produktuen aldeko apustuaz gain, nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua ere egin duzue. Zer da hau zehazki?

Nekazaritza ekologikoaren oinarria ximaurra da. Gaitzak azaltzen badira, berriz, tratamenduek naturalak izan behar dute. Lan

gehiago ematen du, landutakoa gehiago zaindu behar baita. Bestalde, zerbait gehiago ere ikasi behar da eta produkzioa zertxobait txikiagoa da.

Zer dela eta da onuragarria nekazaritza ekologikoa?

Kotxeari kalidadeko gasolina botatzen diogu eta guk, ordea, kalidade gutxiako janaria jaten dugu. Duela gutxi arte merkea eta ona izan dugu, baina egun jada ez. Janari merkearekin ezin gara ibili, ez gu, ez lurra. Beste zer edo zertan gastatzeko janarian aurreztuz, gure teiltuari harrika ari gara: osasun txarra, pinuak, kutsadura... dira ondorioak. Ez gabiltza gure interesa defendatzen. Guk saldu ezin badugu, hemendik 5 urtera beste zer edo zer produzituko dugu. Sagar guztiak saltzen saiatuko bagina, salduko genituzke. Baina etorkizuneko ikuspegia izan behar da eta bertatik-bertarako salerosketa egin nahi dugu.

"Nekazari ekologiko" asko al zaudete Euskal Herrian?

Baserritar gehienak nekazaritza ekologikotik oso gertu daude, baina guztiz ekologikoki lan egitera jo beharko lukete. Bi bide dituzte: nekazaritza intentsibora edo ekologikora jo. Batzuek nekazaritza ekologikoa lehengo baserrira itzultzea dela uste dute, baina etorkizuneko baserria da. Nire ustez ekologikora jo behar da, baina, kontsumitzaileek eta administrazioak ere honen aldeko apustua egin beharko lukete. Baserritarren lana natura zaintzea da eta honek sari bat merezi du. Egia da administrazioak eta kontsumitzaileak nekazaritza ekologikoaren aldeko pausuak ematen ari direla, baina pausu hauek azkartu egin beharko lirarteke.

Nekazaritza ekologikoak berez al dakar bertako produktuak bultzatzea?

Oso lotuta daude. Mundu globalizatu honetan Txileko sagarrak jaten ari gara, baina ekologikoa eta osasuntsua bertan-bertakoa jatea da. Izan ere, ahal den neurrian, momentukoa jan behar da eta momentukoa bertakoa da soilik. Hau guztia ekonomian, produkzioan eta osasunean orekatuena da.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Josemari Ale

Josemari Aleman Amundarain marrazkilaririk "Gipuzkronikak" izenburua duen liburua kaleratu berri du. Bertan, azken urteotan Gipuzkoan emandako hainbat gertakariren inguruan egindako marrazkiak eta testu laburrak bildu ditu. "Gipuzkronikak"-erako egindako marrazkiekin erakusketak osatu du eta, Kutzaren laguntzaz, marrazki hauek herririk herri dabilta azken hilabeteotan. Erakusketak hau hilaren 17a bitartean Itarte Etxean ikusgai izan dugu. Josemari Aleman berak liburuaren, erakusketaren eta, orohar, bere bizitzaren berri eman digu.

Zenbat urtez bizi izan zinen Urretxu-Zumarragan, Josemari?



Urretxun jaio nintzen, 48ko abuztuaren 12an, baina hilabete gutxitara Urolako muga zeharkatu eta Kalebarrenera joan ginen bizitzera. Han 12 urte bete bitartean bizi izan nintzen, uste dut. Handik Urdeneta hiribidera joan ginen bizitzera. Etxe hartan ez nuen denbora gehiegi eman, bata edo bestea zela, kanpoan Zumarragan baino denbora gehiago ematen bainuen. 15 urte nituela hasi nintzen kanpora joaten (barneko ikasle Donostiako La Sallera, Gasteizera soldaduska egitera...) eta 72an, ezkondu nintzenez, behin-betiko joan nintzen.

Zer oroimen dituzu urte haietaz?

Kalebarren auzo oso berezia zen, muga modukoa. Gainera, nire garaian, pasonibela zegoen txabola eta guzti... Kalebarrengo mutikook Ipintzaraino doan muga zaintzearen ardura hartu genuen. Goiko Kaleko urretxuarrekin etengabeko gerra egoeran bizi ginen. Haien cherokee-en antzekoak ziren, okerragoak oraindik! Zumarragako gerlari arriskutsuenak auzokoak ginen. Batailak, bahiketak, lapurreak, zaurituak... izaten ziren etengabe. Zumea lantza moduan erabiltzen genuen, baita arkuak eta geziak, habailak, tiragomak, perdigozko eskopetak... eta erritu letarako sua erabiltzen genuen. Batzuek txakurrak ekartzen zituzten, ezagunenak Juatxirenak ziren. Koartel nagusia Badiolaren tailerrean genuen. Hura haurtzaindegi modukoa zen, baina oraingoak baino askoz ere dibertigarriagoa.

Fraideekin, berriz, oso gaizki moldatzen ginen. Asto samarrak ziren eta beldur handia genien. "Kazurro" deituak gure belaunaldia

man, jaioterrira begira



dian eragin handia izan du. Hiltegia, askako zapaburuak, Atxubita erreka, Olatxeako behia, On Joakinen korua, "prau"-ko eserlekuak, plazako dantzaldiak, Antioko bederatiurrena, koadrilako poteo amaigabeak, Sagaspe eta Garrido tabernetako karta joko klandestinoak (bi pezetako anisarekin eta fariasarekin)... ondo asko gogoratzen ditut.

“Kalebarrengo mutikook Ipintzaraino doan muga zaintzearen ardura genuen”

Zer dela eta joan zinen herritik?

Aitona-amonak Donostian bizi ziren eta denboraldi luzeak ematen genituen beraiekin. Donostia oso ezberdina zen: gaztelua, kaia, alde zaharra... eta Boulevard-etik haruntzago hiri erraldoia. Jendea, dendak, autobusak... ezberdinak ziren. Ezagutu nahi nuen mundua zen. Itsasoa hiri guztian usaitu zitekeen. Zumarragara itzultzen nintzen bakoitzean negar egiten nuen. Soldaduska bukatu nuenean Donostian gelditu nintzen. Ametsa bete nuen.


Zer ikasketa burutu zenituen?


Injeniaritzako lehen maila egitera joan nintzen Arrasatera, baina oso urte txarra pasa nuen: asperturik, ilusiorik gabe, Arrasateko giroak ito egin ninduen. Urtera, Arte eta Dekorazioa ikasten ari

nintzen Donostian. Titulu hori besterik ez dut. Ez dut beste ezer behar izan gustuko lanetan aritzeko. Duela gutxi informatika programa ezberdinen ikastaro batzuk egin ditut eta oso gogorra egiten zait klasera joatea. Historiaurreko kontuak iruditzen zaizkit. Tituluak eta diplomak ez ditut gustukoak. Ez dute ezer erakusten.

Nondik datorkizu margozaletasuna?

Batxilergoan marrazki gehienak amak egin zizkidan. "Kazurrok" sarritan zigortu zidan gaizki marrazteagatik. Betidanik, ondo marrazten duen eta letra ona duen jendea mirestu dut. Nik beti gaizki marraztu dut eta letra negargarria izan dut. Dekorazioa ikasten hasi nintzenean margotzea dibertigarria eta baliogarria zela jabetu nintzen. Margotzea idaztea bezala dela ikusi dut. Margotzen ez badakizu, ezin





zara espresatu. Azkenaldian, gutxieneko espresio erraminta ordenadorea da. Margotzea anakronikoa dela iruditzen zait, baina sekula baino gehiago gozatzen dut papera eta arkatza hartzen ditudanean. Nire letrak negargarria izaten jarraitzen du, baina duela urte batzuk Gipuzkoako sormen letra onenari saria eman zidaten. Txundituta gelditu nintzen!

Nondik nora ibili zara lanean?

Aitarekin Rilén delineante, soldaduska egiten ari nintzela Donostiako dekorazio estudio batean, ezkondu eta gutxira eraikitzaile batzuekin batera Wel Estudio izena zuen dekorazio eta diseinu enpresa sortu nuen... 1977ko abenduan El Salvadorrera lanera joatea proposatu zidaten eta urtarilerdialderako bertan nintzen emaztearekin, bi haurrekin eta maleta pilo batekin. Urte zoragarriak igaro genituen, baina gerra heldu zen eta Donostiara itzuli behar izan genuen. Handik gutxira Ecuadorrera joan nintzen, Guayaquilera, arkitektu koloniar batekin lan egitera.

Ondoren, Quitora joan nintzen haurrentzako altzariak diseinatzera, baina bertako giroa ez zitzaidan gustatu eta Donostiara itzuli nintzen. Bi urtetan denetik egin nuen eta, ondoren, hiru urte eman nituen ETBrentzat eszenografo lana egiten. 12 urte inguru daramatzat Diario Vascon kolaboratzen eta lehenago bi urte eman nituen DVóramen. Azken urteotan diseinu grafikoan, ilustrazioan eta eszenografian aritu naiz batez ere. Etxean lan egiten dut eta hori gauza handia da.

Zein da zure ibilbide artistikoa?

68ko maiatzean erakutsi nituen


“Margotzea idaztea bezala da. Margotzen ez badakizu, ezin zara espresatu”

lehenengoz nire lanak eta ez Parisen, Donostian baizik. Hori izan zen iraultzari eskaini nion ekarpena. Gero, taldelaren garaia heldu zen. Gureak Euskal Ertia zuen izena eta gure lanak herrietako festetan erakusten genituen. Beti serieak egin ditut, hau da, egitasmo zehatz bat 30-40 lanetan garatu dut. Nire ustez, hau hala egin badut sekula pinturatik bizi ez naizelako izan da. Bi edo hiru urtero izan ditudan eroaldiak dira. "Kontrakanpaña" izenekoa behin bakarrik erakutsi dut, "Jazz...ta la última nota" Gipuzkoa osoan zehar ibili da, "Nobviedades", "Los puentes de Donosti", Hondarribiako Alardeari buruzkoa... Zumarragako Udalari herriari buruzko bat saldu berri diot. Bestalde, El Diario Vascon argitaratutako hiru karikatura serie ditut. DVn zenbat iritzi marrazki egin ditudan ez dakit. Azken urteotan, ordenadorez, 1.200 egin ditudala uste dut.

Zer liburutan parte hartu duzu?

Argitaratu nuen lehen liburuaren izenburua, 1977an Erein argitaletxeak





kaleratu zuena, "Nola jaio nintzen" zela uste dut. Haurrentzako sexu hezkuntza liburua zen eta ikastola guztietatik pasa zela uste dut. Beranduago antzerako zer edo zer saldu nuen Guayaquilén, "Uno más en la familia" izenburua zuen. 1994an Anton Arbuluk, Juan Agirrek eta hirurok "Historias viejas, paredes nuevas" liburua egin genuen Foru Aldundiarentzat. Juan eta biok liburu asko egin ditugu Foru Aldundiarentzat, Kutxarentzat eta argitaletxeentzat. "Arantzazu", "La Universidad de Oñate y el renacimiento", "La casa consistorial de Vergara", "Antigua", "Iparraguirre"...

Zer komunikatu nahi izaten duzu marrazkien bidez?

Serie bakoitza istorio bat da. Batzuetan talde bat omendu nahi duzu, beste batzuetan zer edo zer jaso eta gorde (zentzu antropologikoan)... Baina gehiengotan kontua jolastea, ironizatzea, gauzei eta gertakizunei hainbesteko garrantzirik ez ematea, kritikatzeara... da.

Zer da "Gipuzkronikak"?

Lehenago aipatu ditudan serie horietako bat da. 95az geroztik Kutxarentzat egin dudana antropologi-kazetari lan bat da. Azpimarragarriak iruditu zaizkidan urteko sei gertakari hartu ditut (inaugurazioak, urteurrenak...) eta umorez


bakoitzarekin batera datuak, izenak, datak eta egoeraren azalpen barregarria dituen testua doa. Aurrera atera dudana egitasmerik handiena da eta Kutxa aurten hasi da herrietan erakusten.

**"Gipuzkronikak
Kutxarentzat egin
dudana antropologi-
kazetari lan bat da"**

eta fantasiaz margotu eta azaldu ditut. Gertatu zena, gertatu zitekeena eta, beharbada, gertatu izan balitz dibertigarriagoa zatekeena jaso dut bertan. Txinatar tintaz eta akuarelaz margotuta dauden margo hauetan jende asko azaltzen da. Koadro

Bukatzeko, sarritan etortzen al zara Urretxu-Zumarragara?

Azken 8-10 urteetan sarriago joaten naiz. Herriaren kanpoaldea asko aldatu da, baina erdigunea gutxigorabehera berdin dago. Dena den, zenbait toki aldatu dira: Kalebarrenek muga izaera txikiagoa du, "la cuesta de los cesteros"-ek garai bateko izaera galdu du, Urretxuko plaza guztiz aldatua dago eta bere egitura galdu du... Toki askori hori gertatzen ari zaiela iruditzen zait. Jendea ere asko aldatu da eta oso gaizki pasatzen dut norbaitek kasu egin eta ezagutzen ez dudanean. Gaztaroko lagun oso gutxi bizi dira jada Zumarragan eta ia ez dugu elkar ikusten. Antigua Abesbatzakekin lan egiten dut eta lan hau nire haurtzaroko oroitzapen on batzuekin lotzen nauen zilborrestea da.



Animo "Musti"!!



Guztiok dakizunez, Juan Mari "Musti" Mujika duela urte eta erdi izandako zorigaiztoko auto-istripuaren ondorioak pairatzen ari da. Hori dela eta, Urolako, Realeko, Alaveseko eta Deporreko jokalaria ohia eta Urolako entrenatzailea den "Musti"ri eta bere familiari animoak emateko asmoz, Errealeko Jokalari Ohien Elkarteak eta Urolak hainbat ekitaldi antolatuta dituzte hil honetarako.

Hilaren 19an, arratsaldeko 7:30etan, solasaldia izango da Zumarragako Zelai-Arizti aretoan. Bertan, Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Aranzabal Realeko jokalaria eta Urolan "Musti"ren entrenatzailea eta presidentea izan ziren Juanjo Aldama eta Anselmo Portillo izango dira. Moderatzaile lanetan Iñaki de Mujika Donostiako Herri Irratiko kazetari ezaguna arituko da. Bertan, Juan Mariren ibilbide profesionalari eta Realaren egungo egoerari buruz mintzatuko dira.

**Hilaren 23an
berekin gaudela
erakusteko aukera
bikaina dugu
Donostian**

Zazaroaren 23an, berriz, Realeko eta Real Madrileko beteranok "Musti"ren eta bere familiaren aldeko partida jokatuko dute Anoeta futbol zelaian arratsaldeko 5etan. Talde Txuri-urdinean, besteak beste, "Txiki" Begiristain, Jose Mari Bakero, Carlos Xabier eta Oceano arituko dira. Madrileko taldean "Quinta del Buitre" delakoaren hainbat ordezkari izango dira, besteak beste (Michel, Butragueño eta Martín Vázquez, esaterako). Antolatzaileen asmoa atsedendian Anoetako markagailuan "Musti"ren jokalaria garaiko irudiak eskaintzea da.

Partida honetarako sarrerak Urretxu eta Zumarragako kiroldegietan, Zumarragako Txoko eta Huts tabernetan eta Urretxuko Hiru tabernan salgai dira jada. Helduen sarrerek 10 euro balio dute eta 14



85-86 denboraldiko Sanse taldearen aurkezpena. Toshack-ek urte hartan igo zuen "Musti" lehen taldera.

urtetik beherakoek 5 euro besterik ez. Donostiara joateko autobusa doan izango da eta autobusan tokia hartzeko sarrera erostearrekin batera autobuserako izena ematea besterik ez da behar. Anoetako sarreran bi txartelen truke Realaren ereserkiaren 5 bertsiotuen CD bat oparituko da.

Urola taldeko jokalaririk eta presidentea ohia den Valentin Barrenak esan digunez, "Juan Mariren aldeko ekitaldiak Errealeko Jokalaririk Ohien Elkartearen ekimena izan

dira. Gure partehartzea ere beharrezkoa dela uste dutenez, gurekin harremanetan jarri zirenean. Urolak ere "Musti"ri eta bere familiari laguntzeko zer edo zer antolatzeko asmoa zuenez, azken asteotan Anoetan bilerak izan ditugu bi ekitaldi hauek antolatzeko".

Valenek, Urolaren izenean, urretxuar eta zumarragar guztiei deialdia luzatu nahi die hilaren 23an Donostiara joan daitezkeen. "Laguntza eta babes moralaren beharra azpimarratu nahi dugu. Hori dela eta,



Arkoñada, Sagarzazu, Gajate, Bengoetxea, Larrañaga, Bakero I, Loren, Zamora, Goikoetxea eta Uriarekin Tolosako Berazubi futbol zelaian.

Muntasia e Instalaciones Electricas
HERCE
 Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
 Enpresa mantenua
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
 Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
 Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Belardeta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
 ZUMARRAGA

belardain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga 30 ☎943 72 27 80
 URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
 ☎ 72 11 55
 Zumarraga

Labeaga, 43
 ☎ 72 16 81
 Urretxu

Kale nagusia, 5
 ☎ 73 04 19
 Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URKI

liburudenda

Secundino Esnaola, 3
 ☎ 943 72 42 98
 ZUMARRAGA

Anoetako partidara ahalik eta herritar gehien eramaten saiatu behar dugu. Bi herrietako elkarte ezberdinekin harremanetan jarri gara euren bazkideak partida ikustera joatera anima ditzaten. "Musti"ri eta bere familiari berotasuna eskaini behar diegu. Gogoratu zer nolako poza ematen zigun "Musti"ri esker gure herriaren izena behin eta berriro komunikabideetan entzuteak eta irakurtzeak. Gure

herriaren alde egin duena eskertzeko garaia heldu zaigu".

Valenek ederki asko ezagutzen du "Musti", laguna izateaz gain, berarekin jokatu baitzuen Urolan eta bere presidentea izan baita kargua utzi duen arte. "Juan Mari Urolara heldu zen arte Biain eta biok botatzen genituen faltak, baina Legazpi auzunetik ume moko bat heldu zen eta berehala berak hartu zuen falta guztiak

botatzearen ardura".

Pertsona bezala, bestalde, herri guztiak du Juan Mariren gizatasunaren berri. "Jokalaria ona izateaz gain, pertsona ona ere bada. Bere ezaugarri nagusia umiltasuna da: futbolaren goi mailan aritu izanak ez du bere izaeran eraginik izan. Jokalaria garaietan haur guztiakin oso adeitsua zen eta mundu guztiarekin harremana du".

La Salleko patiotik Kopa irabaztera

Juan Mari "Musti" Mujika gure bi herriek eman duten futbolari onena izan da. Beste mutiko askok bezala, oinez ikasi eta berehala baloiari ostikoak ematen hasi zen bere gurasoen etxeondoan dagoen La Salleko futbol zelaian.

Urolako arduradunek azkar asko ikusi zuten mutiko hark futbole-rako dohain bereziak zituela eta urte gutxitan Urolako lehen taldeko "izarra" bilakatu zen. Urolakoei Juan Mari goi mailako jokalaria izan zitekeela iruditu zitzairen eta ahaleginak egin zituzten Realeko begiraleek "Musti" jokatzeko ikus zezaten.

Halako batean zumarragarra ikustera etortzea lortu zuten eta 1984an "Musti" Sanse taldera deitu zuten. Hurrengo denboraldian, John Toshack heldu zen Donostiara taldea berritzeko asmoz eta berehala erreparatu zion "Musti"ri. Denboraldi hartan bertan egin zuen Realarekin debuta. Hura poza jaso zutena herriko futbolzaleek! Zenbat herritar eraman ote zituen "Musti"k Zubietara bere Ford Fiesta erosi berriari!

Lehen denboraldi hartan "Musti"k guztira 38 partida jokatu zituen, gehienak eskuin hegaleko aurrealdean, eta 7 gol sartu zituen. Urolan bezala, Realean ere berehala hartu zuen faltak eta kornerrak

ateratzearen ardura. Juan Mari Realak 80 hamarkadako bigarren erdian izan zuen falta jaurtitzaile onenetakoa izan zen.

1986/87 denboraldia ahaztezina da Juan Marirentzat eta gaintzeko Realzaleentzat. Izan ere, urte hartan Realak bere azken txapelketa irabazi zuen: Espainiako Kopa. Finala Zaragozan jokatu zen Madrilgo Atléticoaren aurka eta

eta partidu gehienetan bigarren zatian irteten zen.

1988/89 denboraldia "Musti"k Realean jokatu zuen azkenurrekoa izan zen. UEFAko 7 partida jokatu zituen, Ligako 22 eta Kopako 4. Guztira 33 partida jokatu bazituen ere, ez zuen golik sartzea lortu. Realean jokatu zuen azken denboraldian, berriz, Kopako 5 partida eta Ligako 22 jokatu zituen.

Realak ez zion kontratua berriro eta A Coruña-ko Deportivo-ra joan zen. Deportivo garai hartan bigarren mailan zegoen, baina denboraldi hartarako egindako fitxaketei esker lehen mailara igotzea lortu zuen. Lehen mailan jada, Deportivo-ko Mauro Silva eta Bebeto brasildarrak fitxatu zituen eta "Superdepor" izena jarri zioten. Juan Marik urtebete jokatu zuen "Superdepor" hartan eta, ondoren, Alavesera joan zen.

Talde gasteiztarra garai hartan 2. A mailara igo ezinik zebilen arren, "Musti"k bertan eman zuen denboraldian lortu zuten azkenik zilarrezko mailara igotzea. Alavesetik Andaluziako San Pedro taldera joan zen, baina talde honetako arduradunek ez zuten kontratua errespetatzen eta Urolara itzultzea erabaki zuen. Bertan, bere jokalaria ibilbidea amaitutzat eman eta lehen taldea entrenatzeari ekin zion.



"Musti" bigarren zatian atera zen zelaira. Berak sartu zuen Realari garaipena eman zioten penaltietako bat. Denboraldi hartan Ligako 37 partida ere jokatu zituen eta guztira 7 gol sartu zituen.

Hurrengo denboraldia ere bikaina izan zen Realarentzat, Liga eta Kopa txapelketetako azpitxapel-duna izan baitzen. "Musti"k 27 partidatan 2 gol sartu zituen. Denboraldi honetan jada, titular izateari utzi zion



Aintzane, alferrik zabilta... kaleko galdera egiteko gai diren gure paparaz-zi prestuei ihes egingo dienik ez da jaio oraindik!



Aitor, bizilagun jatorrena Zumarragara joan zaizue... norekin eztabaidatu behar duzu orain Goierri-Urola Garaia auziaz? **Zorionak!**



Amaia, eskerrak Aizpurutxo bideko zubiak bota zituzten, bestela zure mototx horrekin ez zenuke azpitik pasatzerik izango!



Ander, non demon- tre utzi duzu lepoa? Plastilinez egindako muñekotxo diruzi... Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Ander, urtebetetze egunean ezer oparitu ez dizutelako al zaude horren triste? Lasai, hilabete barru Olentzero etorriko da eta!



Andrea, hori da hori txori puska jarri dizutena... ez al zaizu burua esku- bialdera errotzen? Zorionak eta ondo ibili!



Lasai Beñat, Anderren etxetik pasa ondoren Olentzero zure etxetik ere pasako da eta! Zorionak eta ondo ibili!



Bere, ez haiz ba orain txintxo plantak egiten hasiko... dagoeneko herri guztiak ederki asko ezagutzen hau! Zorionak!



Danel, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Argi ibili, bestela oparirik gabe geratuko zara eta! Zorionak eta ondo ibili!



Dolores, hori da hori flasha erabili duena argazkilar- iak... aurpegia zur- bil-zurbil eginda utzi dizu! Zorionak eta ondo ibili!



Eneko Barrasa ala Eneko Barrabasa al zara? Argazkia ikusi txintxo askoa zarella dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



Idioia ez zaitez des- pistatu, dagoeneko ahizpa bihurrikeria- ren bat egiten ariko da eta! Zorionak eta segi horren txintxo!



Itziar, Aintzeneri sol- data eskatzen hasi beharko duzu, enkargu guztiak egi- ten laguntzen diozu eta! Zorionak eta segi horren txintxo!



Van Damme, Afrika aldean ibili al zara egurra ematen? Hori da hori kolorea hartu duzuna! Zorionak eta ondo ibili!



Jose, hori da hori alproja itxura duzu- na... nabari da bai Mikel eta Miguel Angelen familiakoa zarella! Zorionak eta ondo ibili!



Jose Mari, Bertatik Bertara utzi duzu- netik Euskal Herriko aiton-amonek tele- bista ikusteari utzi omen diote... Zorionak!



Juan Carlos, ez al duzu Van Dammek bezainbeste eguzki hartu Afrika aldean? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Luzia, egunero- egunero jartzen al duzu buruan zapia? Zorionak eta ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun!



Mari Carmen, txiki- tan Andoniri ipuinak irakurri beharrean poesia irakurtzen al zenion? Zorionak eta segi horren irri- fartsu!



Lastima argazkiare- kin batera zoriondu behar dugunaren telefonatu ematen ez diguten... Zorionak Marian eta segi horren lirain!



Maritxu nora zoaz eder galant hori... Kakuetara Aintzane nahi badezu etorri! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mikel, "Manolito Gafotas"-en euska- razko bertsioa egin nahi badute, zuri deitza besterik ez dutel! Zorionak eta ez hasarratu!



Mila, katekesian milaka lagun dituzu baina zuhur sama- rrak dira. Egin al dizute oparirik? Zorionak eta ondo ibili!



Mirari, etzazue bertso-eskolako helduen eredu- jarraitu eta segi orainarte bezain txintxo eta fin! Zorionak!



Hona hemen **Nerea**, On Joxe Mari Aznarrek etxebizitza guztiak saltzen direla eta "paña va bien" esan ondoren. Hau zoriona!




Oihane, non demon- tre dabil zure ahiz- pa? Ezkondu eta for- maldu beharrean aldrebestu egin al da? Buzoia paperez gainezka du!



Jon, etzizioz aitari kasurik egin eta egin zaitez Realzale! Horiek bai dakitela futbole- an jokatzeko! Zorionak eta ondo ibili!



Hona hemen Iñakik lehen eta azkeneko aldiz kalera atera zenean zuen itxura. Iñaki, itzuli behin- goz etxea, guraso- ak zain dituzu eta! Zorionak!



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



Gailurra ikutzen

Gure inguruan mundu mailan eza-guna den kirolari bat bada, hau Maitane Andueza ezkiotarra da. Azken urteotan Gipuzkoa, Euskal Herria eta estatu mailan ez du areriorik eta munduko mailako txapela ere geroz eta gertuago du. Orainarte Gipuzkoako, Euskadiko eta Zona Norteko 5 txapelketa eta Espainiako 2 txapelketa irabazi ditu. Munduko Txapelketa, aipatu bezala, geroz eta gertuago du: aurreko urteetan bederatzigarren eta hirugarren postuak lortu ditu eta aurtengoa bigarrena izan da.

Hasteko; egin iezaguzu aurtengo zure balantzea:

Txapelketa asko egon dira: Gipuzkoakoa, Euskal Herrikoa, Espainiakoa, etab. Munduko Txapelketa ere aurtengoa da. Hala, postu onak lortu ditut denetan. Gipuzkoa, Euskal Herri eta Espainiako Txapelketak irabazi ditut, eta Munduarean bigarren toki eskuratu nuen.

Non eta noiz jokatu zen Munduko Txapelketa?

Traloupen izan zen, Frantzia. Hori abuztuan izan zen. Maila altuena bertan eman nuela uste dut. Bigarren toki erdietsi nuen, baina hango maila, hemen egiten diren txapelketekin alderatuz gero,

askoz ere altuagoa da. Txapelduna 18 urteko frantziar bat izan zen.

Hortaz, kilometro asko egiten dituzue alde batetik bestera, ezta?

Bai. Esterako, Espainiako Txapelketa zazpi lasterketek osatzen dute. Aurtengoa Lorcan (Murcia), Granadan, Salamancan, Gironan, Valentzia, Gasteizen egiten dira; pentsatu zenbat kilometro...

Beraz, Espainiako Txapelketa ez da egun bakarrean jokatzeko; hau da, sailkapen orokorra irabazi behar da txapelarekin egiteko.

Hori da. Liga baten antzekoa da; beste edozein Kiroletan egiten den legez,

puntu gehien batzen duena gailentzen da.

Zu baina nagusiagoekin lehiatzen zara?

Bai, ia denak ni baino nagusiagoak dira. 18, 20, 22... urteko jendearekin topo egin dut.

“Ilusioa mantentzen dudan bitartean trialsinean lehiatzen jarraituko dut”

Nola doa babeslearen kontua?

Goierrri K.E arekin mintzatu ginen, baina ez zuten gure proposamena aintzakoizat hartu. Egia esan, ez dugu ulertzen nola bizikleta batekin egiten den kirol hau ez duten euren egitaruan edo euren plangintzan sartzen. Hala ere, argi utzi nahi dugu ez dugula ezer Goierrri K.Earen aurka; haatik, ez dugu elkarte honetako Kirol delegatuaren jarrera ulertu. Pertsona horrek jarrera bera mantentzen badu, guk ez dugu inongo hartu-emanik edukiko Goierrri K.E.-arekin. Pena da, baina halaxe da.

Herrian, zeu bakarrik, aritzen zara trialsiean ezta? Bederen maila gorenean.

Bai, baina nahiz eta bakarra izan nolabaiteko laguntza merezi dudala uste dut. Halaber, kirol bat sustatzen ari naiz, ez beste ezer. Jarrera honek ez dio inongo mesederik egiten txirrindularitzari

Kirol garestia da ezta?

Bai, batez ere alde batetik bestera ibili behar dugulako.

Federatuta lehiatzen zarete?

Bai, orain Lazkaoko Txirrindulari Elkartean federatuta gaude.

Astean zenbat egunetan entrentzen duzu?

Ez dut planning, edo ordu-tegi berezirik. Astia dudanean, Mountain Bikea hartu eta zirkuito-txo bat egiten dut; era honetan fondo lantzen dut. Hala ere, teknika ez dut batere lantzen; ez baitago horretarako aukerarik. Egia esan, eta inor gu-

txietxi gabe, Gipuzkoako Txapelketa erabiltzen dut teknika lantzeko eremu bezala.

Beraz, urtean zenbat lasterketetan aritzen zara?

Txapelketa guztiak batuz gero 25 bat lasterketa izango dira; gutxigorabehera.

Eta etorkizunerako, zer?

Ez dakit, ilusioa mantentzen dudan bitartean lehiatzen jarraituko dut. Noski, ikasketekin uztartzeko denbora nahikoa badut; hala ez bada, utzi egin beharko dut.

Ikasketak aipatu dituzu. Nola daramatzu?

Orain arte nahiko ongi. Dena den egokitu izan zait astelehen edo asteartean azterketaren bat edukitzea, eta astebukaera osoa etxetik kanpo ematea. Hori gogorra egiten da.

Kirolgin barneratzeko paradarik eduki al duzue?

Lehiatzen jarraitzen badut, 17 urte betetzen ditudanean sartuko naiz. Orain gutxi Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin harremanetan jarri gara, eta ia hilabetero azterketa-fisiko batzuk egiten dizkirate sasoiko nagoen ala ez ikusi ahal izateko. Horrela hobera egingo dudalakoan nago.



MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Pisua salgai Zumarragan

Soraluze, 1. eskuina

☎ 943 72 14 17

☎ 943 72 19 94

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Arantxa Alvarez Urcelay

Arantxa aski ezaguna da herrian, 20 urte inguru baitaramatza familiaren Legazpi liburudendan lanean eta inork gutxi bezala bizi baitu festa giroa. UBI bitarteko ikasketak "nazionaletan", Medranotarren eskolan (Josefita eta Bitorirekin), mojan eta institutuan egin zituen. Artearen historia gustukoa zuen arren, ez zuen hortik bizitzerik izango zuenik espero eta ama zenarekin lanean hasi zen 36ko gerra aurretik zabaldu zen Legazpi liburudendan. Bere lana gustukoa du, baina "denda batek lan handia ematen du eta, gainera, merkatalguneek konpetentzia handia egiten digute".

Astia duenean mendira joatea atsegin du. "Eguraldi ona egiten badu joaten naiz. Ez naiz eguraldi txarrarekin joateko adina mendizalea. Koadrilakoek seme-alabak izan eta zahartu aurretik gehiagotan joaten nintzen". Mendian edo menditik kanpo, Arantxak turismoa egitea gustuko du orokorrean. "Euskadiri turismoa egitea gustatzen zait. Kotxea hartu eta herri txikiak ezagutzera joaten naiz".

Egun batzuetarako ateratzen denean, berriz, kanpinetara joaten da. "Penintsula osoko kanpinetan izan naiz. Ahal dudan guztietan ateratzea atsegin dut. Kontua jendea eta mundua ezagutzea da".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Irakaslea. Txikitan etxean irakasle izatera jokatzeko gurela gogoratzen dut. Gela bat horretarako apropos prestatua genuen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin, nire jendearekin, egotea, mendira joatea eta antzerkia ikustea.

-Bizitzeko toki bat?

Kostaldea. Zumarraga ez dago gaizki, kostaldea gertu baitugu eta komunikabide onak baititugu.

- Kanpina ala hotela?

Oso kanpinzalea naizenez, beti kanpinera joaten naiz. "Set" osoa dut: denda, kapingasa, koltxoia...

-Oporretara joateko toki bat?

Kubara joateko gogoia dut.

-Zein herritako festak dituzu gustukoak?

Herri guztietakoak atsegin ditut. Urretxukoak oso ondo daude.

-Herriko taberna bat?

Alaska eta Berri, baita Gaztelekua ere.

-Zer da zure lanetik gehien atsegin duzuna?

Jendearekin tratua.

-Eta gutxiak?

Zer erosi erabakitzea.

-Haurrak gustukoak al dituzu?

Bai, baina besteenak. Espontaneoak eta naturalak dira, ez dute aurretik juzgatzen.

-Lehenengo haurrak ala oraingoak?

Oraingoak lotsagabeagoak dira.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Loteria.

-Eta jasotakoa?

Irailan asko jaso nituen, nire urbetetzea izan baitzen.

-Data bat?

Asko gogoratzen ditut, onak eta txarrak.

-Neska eta mutil izen bana?

Kizkitza. Mutilenak denak gustatzen zaizkit.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Ez dut egunkaririk irakurtzen, ez baitut astirik.

-Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebista asko ikusten, baina ikusten dudanean ETB1 ikusten dut nire euskara hobetzeko.

-Bereziki gorroto duzuna?

Ez dut telebista saiorik gorrotatzen, baina "Gran Hermano" eta antzerako muntaiak ez zaizkit batere gustatzen.

-Liburu bat?

"Manolito Gafotas"-en guztiak irakurri ditut eta antzerkia ere ikusi dut.

-Filme bat?

"Titanic". Estatuatuaren tontakeria hoietako bat izango zela uste nuen eta asko gustatu zitzaidan.

-Gustuko abestia?

John Lennon-en "Imagine". Dena den, batez ere punk-rocka atsegin dut.

-Soinu bat?

Kitarrarena.

-Usain bat?

Zelaietan dagoena, itsasoarena...

-Janari bat?

Denak, ez dut gustuko ez dudana ezer ezagutzen. Norbait animatzen bada, gonbida nazala bazkaltzera.

-Ura ala...

Ura eta garagardoa.

asirauto



**Bigarren eskuko autoetan
aukera zabala**



Mugitegi industrialdea, URRETXU

Telf. eta faxa: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79

IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU